



## **2010EKO IRAILAREN 15EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko irailaren hamabostean, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo.

Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2010eko uztailaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 7 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERREHUN ETA HOGEITA BOST MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMALAU euro eta LAU zentimo (225.154,04 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

Bestalde, abuztuan alkatetzaren ebazpen bidez onartutako 23.911,31 €ko faktura daten eta Santa Magdalenako Birrurbanizazio lanen 106.459,43 €ko likidazioaren berri ematen da. Onarpen hauek, abuztuan Tokiko Gobernu Batzarrik ez dagoelako eta ordainketak asko atzera ez zitezen egin ziren.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

### **III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

#### **Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 736 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja da 2010eko abuztuaren 20tik, heriotzagatik.

#### **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.-**

- 627 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairua eta mantenimendu gastuetarako laguntzetatik baja ematea irailetik aurrera, bizilekuz aldadu delako.



- 09-01-004 zbk.dun esped.: suspentsio prebentibotik alta ematea, baldintzak betetzen jarraitzen duelako.
- 825 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairuko laguntzatik baja ematea, irailetik, beharra gutxitu delako.

#### Telealarma Zerbitzua.-

- 10-12-004 zbk.dun esped.: telealarmaren instalaziorako 40,89 € eta telealarmaren mantenimendu gastuetarako urtean 43,57 € ematea. Ematen zaiona telealarma kostuaren %50a da.
- 10-12-001 zbk.dun esped.: telealarmaren instalaziorako 40,89 € eta telealarmaren mantenimendu gastuetarako urtean 43,57 € ematea. Ematen zaiona telealarma kostuaren %50a da.

#### IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Mintzalaguna proiektuari dirulaguntza emateko Kultura Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Mintzalaguna Proiektuaren 2010eko urtariletik ekainera bitarteko jardunarengatik, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari BOST MILA EURO (5.000,00 €)tako dirulaguntza ematea erbakitzen du.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

